

Eskerrik asko.

- eskerrik asko EHBilduri botoa eman diozuen herritar guztiei,
- eskerrik asko gaur alkate izendatu nauzuen EHBilduko zinegotziei
- eskerrik asko zinegotzi guztiei zuen konpromisoagatik

1936an udal honetan kargutik egotzi eta erahil zituzten **zinegotzi eta alkatearen** oroimenean,

Gerra garaian Nafarroara ale xehetzera joaten ziren gure **amonen adorearen** izenean, Esteban **Muruetagoiena** gure herriko mediku zenaren zintzotasunaren izenean,

Martzelina Lopetegi Olaiz bertsolariaren libertadiaren izenean,

ohore handiz hartzen dut orain arte **alkate aurrerakoi izandako guztien lekukoa**.

Udaleko paisaia humanoa aldatzera doa eta gurekin batera ziklo berri bat hasiko da. Udaleko paisaia humano horretara batuko gara, gure printzipio eta baloreei leial, orain arte kalean bezala, udalean ere **politika sozial, feminista eta euskaltzaleak** gauzatzeko.

Paisaia humanoa femeninoagoa izango da eta hori abiapuntua besterik ez da politika feministagoak egiteko. Jakin badakigu erakundeak sistema bizirauteko sortuak daudela, ez direla eraldaketarako berezko gunen naturalak, eta kontzientzia horretatik abiatuta lan egingo dugu **politika eraldatzaileak eta parekideak gauzatzeko**. Datorren legealdean emakumezkoa izango da alkatea eta, hemen esan nahi dut, izendapen horrek bere horretan ez duela udala feministago egiten. Udal politika feministak begirada aldatzea eskatzen du, egiteko modu berriak ekartzea, lehentasunak berrikustea, eta hori da egin nahi genukeena.

Guztiona dena defendatuko duten udal politikak bultzatuko ditugu, komunitatea indartuko dutenak. Eta horrek eskatzen du **herritarren eta udalaren artean elkarlan** sendoan jardun behar dugula, ongizatea inoren bizkar oinarritu gabe.

Pertsona guztiok ditugu **zaintza** beharrak eta, Oiartzungo udalak azken urteetan hasitako lana jarraituz, etxez etxeko zerbitzuaren eta ongizate sailaren lana indartuko ditugu, betiere herritarren elkarlana bilatzen duten proiektuak bultzatuz. Maite ditugunak zaintzea, auzoak zaintzea, herria zaintzea, komunitate osoaren zeregina da. Oiartzunen beti zaindu izan ttugu bizilagunak, elkarren berri eduki izan dugu eta komunitatearen babesa sentitu izan dugu. Eutsi diezaiozun gure-gurea den elkarzaintzeko modu aberats horri.

Guztiona dena defendatuko dugu komunitatea indartzeko eta horretan ezinbesteko elementuetako bat da **kultura**. Egunerokoan mamitu behar dugu errealitate bat kulturaren emariak etenik izan ez dezan, sormen berri eta berritzaileekin, garaiari eta lekuari errotuta. Kulturaren funtzio nagusietako bat ondokoekin elkartzea eta elkarrekin zerbait konpartitzea baita. Kultura kolektiboa eta haragizkoa da. Kohesiorako elementu garrantzitsua den neurrian udalerako **kultura politika propioa** diseinatu behar dugu. Eta **euskara izango du noski ardatz**, kultura euskararen barruan baizik ezin baitugu ulertu. Euskara eta euskal kultura defendatzea mundura leiho propio bat irekitzea da. Manuel Lekuonak eta Xabier Letek ongi erakutsi ziguten nola pertsona kulturadunak hemengo kultura bizi dezakeen, bertatik hasiz, kultura unibertsalera zabalik, eta bertara berriro itzuliz.

Oiartzun izango da gure jardun eremua, zaintzan eta kulturaren bezala ekonomian ere. Oiartzunek ingurune oso aberatsa du, naturgune zoragarria eta, hala ere, ezinbestekoa da ingurune hori zaintzeko politikak sustatzea. Naturaz inguratuta bizitzeak ez gaitu mundutik aparte kokatzen. Guri ere igo zaizkigu fakturak, eragiten digu lehorreak eta kezkatzen gaitu elikagaien merkatu globalak.

Pertsonak erdigunean jartzen dituen ekonomia soziala indartzeko garaia da. Bertako elikagaien kontsumoa areagotu eta energia komunitateak sortzen laguntzeko legealdia izango da hurrengo hau. Bide berriak urratu beharko ditugu, sortu, asmatu eta esperimendu ere bai, eta hori guztia zuekin guztiekin egingo dugu.

Garaiari eta egoerei **erantzun nahi eta beharra** izango da datozen lau urteetako erronka. Une batzuetan konplexua eta are, zaila ere izango dela jakitun, erantzunen bila ibiltzea ederra ere izango da, bizirik egotearen seinale baita.

Eskuz esku herritarrekin lan egiteko konpromisoarekin gatz

Eskua luzatuta oposizioarekin adostasunetara heltzeko

Eskua emanaz eskualdeko gainerako udalei

Zazpi lurrez osatutako gure herriaren alde, herritarren eskubideen alde eta euskararen alde lan egiteko.

Gora Oiartzun!